



IBILALDIRA JOATEKO AUTOBUSAK

Maiatzaren 21ean Ondarroan Zubi Zahar herri Ikastolaren eskutik eta "Xe" lemapean ospatuko den Ibilaldira, Bizkaiko Ikastolen jaira, joateko autobusak antolatu dituzte Aiaraldeko udal batzuren artean.

Laudiotik, institututik abiatuko dira 10:15ean autobusak eta Ondarrutik bueltan 19:00etan.

Autobusaren prezioa 12 eurokoa izango da adin guztietarako eta txartelak salgai izango dituzte Udaletxean, Euskara Arloan, maiatzaren 18 arte. Gogoan izan 18 urtetik beherakoek guraso edo legezko tutoreen baimen idatzia bete behar dutela (baimen eredia euskara@laudio.eus posta elektronikoan edo Euskara Arolan eskatu daiteke). Horrez gain, 2008tik aurrera jaiotakoek heldu batekin lagunduta bidaiatu behar dute. Txangoan parte hartzeko bidaiarako arauak onartu beharko dira.



ibilaldia 2023
ONDARROA ZUBI ZAHAR HERRI IKASTOLA